

II. BBK ERREPORTAIA LEHIAKETE

Begiak hegaz hasteko talaia

NATURARI BEGIRA. Kofreak maustan egiten dau urak zilotuz, baleak labanduz daroa bere bidea ekialdeko bandan eta itsasargian, geu euroi begira: Matxitxakon gagoz

Piraten istorioa emoten badau be txorizaleen gauzetan jardun behar dodala argitzen deusut, irakurle. Edo nire amak esaten dakien legez «txorijagoleak» dira protagonista berton. Gitxi dala estilatzen dan hobbya da hauxe: praka laburrak jantzi, katalejuak kokotetik zintzilik eta orduak emotea txorai begira. Holako zaletasuna daukagunok badogu asti luzean igarotzeko leku aproposik. Eta Urdaibaik aukera bikainak eskaintzen deuskuz, baina niretzako aproposeneratikoa Matxitxako lurmuturreko talaia da.

Errittoa da Matxitxakoraino oinez joatea. Urtekerea Bermeotik egingo dogu; baina, gaur egun alperrak jota gagozanez, Bakiorako autobusean egingo dogu bidea Areneko aterpetxe-raino. Handik aurrera kilometro pareira dogu. Kamino hegaletan pinadiak dagoz eta tarteetan itsasoa be ikusi leike, Ogoñoko harri handi sendoa eta hodeiak. Hodeiak ze itsastxoriak hoberen ikusteko iparmendebalak jo behar dau; euria dakarren haize horixe bera.

Ez deusku eragotziko, baina, paisaiatz gozatzea; lurmuturrean puntarago goazen ahala argiune gehiago dagoz-eta arboladietan. Azkenean, itsasoa, itsas labar ganetako larre txiki estuak, itsas krabelinak eta bes-telako landara eta lore bereziak.

Egun argitan badago Frantziako Les Landes ikusten daunik be. Baita Kantabriako hondartzak be, esango deusut handik agertuko jatzun jubilatzen batek be. Baina geu itsas txoraiak eta itsas ugaztunak begiratzera etorri gara bertora.

Higiduraren sinfonia

Kofreak, baleak eta itsasargia. Eta itsasargi zaharra lagun, aurrean ortzemuga dago bere marra bakarraz. Itsas hegaztiak dira eta zetazeoak be bai hautsi egiten dabenak marra hori: le-rra bakarrek pentagrama dogu eta animalio notak dira.

Baleek erritmoa daroe, motel eta patxadatsu, ur azala ia apurtu barik. Kofreak, aldiz, gorantz doaz airean laban, hegoak dardarti pausatzen dira altuan eta, dzanga!, arpoia legez sartzen dira urak zilotuz. Kaioak eta izurdeek doinu alaiagoa daukie; baina ez dira bertako biztanle bakarrik.

Familia handia txori-arrainona!

Ez da erraza izaten txori-arrain guztiak zer diran zehatz jakitea eta horretan han dabilen beste «txorijagole» bati galdetu deusagu. Xarles Cepeda da —*Txepe* esaten deusoe— eta ilargiko erbia ikusteko besteko katalejoa ekarri dau.

Zerrenda bat egiten deusku: aliotak, hegaz doazela konkortuta eta hankak dandarrez daroenak; marikoiak, Bermeon kajaleak deitzen deusienak eta buztanean luma luzeagoak euki daukienak; martinak eta potorroak, fraile-txikiaren antzekoak baina ez bardinak; ubarroi motoduna, baltzizko jantzita osorik eta hatxetan hegoak zabal sikatzen dabezanak; gabaiak, bost mota ez bardinak ikusi leikezuz berton; eta kaioak, zenbat gura eta txiki-txikienetik handi-handienera.

«Aparte paduretako txoraiak», argitzen deusku Txepek, «hemendik be pasatu egiten dira eta migrazinoan,...». Antza denez Asturiaseko Estaca de Bares eta Matxitxako dira Kantauriko begiralekurik hoberenak itsas hehaztiak ikusteko eta zetazeoak bebai.

Zetazeotan bada pazientzia handiaz balea urdina ikusi daunik be. Pazientzia ze behin baino ez ei dabe ikusi; baina bestelakoak ugarigotan ikusi izan dira: balea pilotoa, balea konkordunen familiakoak, orkak ugari, eta isurdeak. «Baina ez da migrazinoan doazela, antza denez hemen-hor dabilta ekialdera eta mendebaldera», dinosku gabardinako txotoa estu jantzita eta katalejo mandoa plastikopetan ondo babestuta.

IPARMENDEBALA

Itsastxoriak hoberen ikusteko iparmendebalak jo behar dau; euria dakarren haize horixe bera

KOFREAK JANARI BILA

Kofreak, aldiz, gorantz doaz airean laban, hegoak dardarti pausatzen dira altuan eta, dzanga!

IKUSPEGI EDERRA

Asturiaseko Estaca de Bares eta Matxitxako dira Kantauriko begiralekurik hoberenak itsas hehaztiak ikusteko

PAZIENTZIA

Inoiz hegazti eta zetazeoak ikusten bazoaz Matxitxakora kontuan izan pazientzia dozula beharrezkoena

Aterpe bila eta inon bez

Txorijagoleontzat latza izan ohi da ordu luzeak euripean parata egotea, hurrengo egunean estulka ibiltzea eta, sarri, bokadilo bustia jatea be. Hau dala-eta, hasita dago Urdaibaiko Patronatoa aterpetxo bat egiteko egitasmotan: Bilboko portuko autoritateari baimenak eskatzen eta «gauza polita egin gura denez», esan euskun lehengoan Xabi Aranak —Urdaibaiko Patronatoko zuzendariak—, «argitorreko estetika apurtuko ez dauan aterpetxo diseinatzeko bagabiltza». Antza jezarrita busti barik itsasora begira egoteko lekutxoa izango da, oraindik noiz egingo den ez dinoskun arren.



KANKO ISPIZUA

Matxitxakoko foru zaharra, goikaldean kaio bi daukazala.

Azken gomendioak eta agurra

Inoiz hegazti eta zetazeoak ikusten hurreratzen bazara Matxitxakora kontuan izan pazientzia dozula beharrezkoen. Esate baterako, maiatz honetan apenas eukiko dozu txori askorik hantxe; hilerik hoberenak irailetik martxora artekoa diralako. Eta hobereneta hoberena urria, ipar mendebalak jotzen dauenean.

Ez zaitez bertara hurreraru laino zarratua dagoanean, ez galarrenak jotzean. Galarrenak

irentsi egin zaizez eta lainoa dagoanean faruko sirenak jotzen dau eta gortu egin zaitez. Ganera, egunotan, ez dago txoririk ikusterik.

Eta azkenengo gomendioa: esango dabe gura dabena, baina patata-tortila bokadiloa ezin da bustita jan. Horrek kalte baino ez deusut egingo-eta. Halan bazan ala ez bazan, sartu daiala aterpean eta urten aterri danean. Urrira arte, Matxitxakon!

KANKO ISPIZUA

40 urte

Kazetaria

MUNDAKA